

ATHERBE-KETA

Etxe multxo bat. Hiru athe. Kantariak buru bozetan:
Ez dukezu, O Maria, haurarentzat ostatu
Bera beharko den zeren guzien-xes-leku
Balakike nahi balu berak toki bilatzen
Opaltasum daroku hastetik erakusten (ber)

Ezkerriko etxearen aintzinean moro haloko bat (*oriental*) jarririk dago lurrean, pipatzen ari.

Istan baten buruan bi Moro jaun handi heldu dire dena pusk eta paketa.
Ongi ethorri egina zaiote erdiko etxean eta sartzen dire.
Gero ostalerak pizten du athe gainean den haloko argi dilonda bat.
Kantua akabatzean jarririk den gizona deliberatzen da bere ezkerreko etxean sartzerat.

Musika zerbeitek edo kantariak ahoa hetsizit ematen dute «Xorittoa nohat hoa»ren airea.

Noizbeit Andredena Mariak Kanpotiti:
«Zoazi, zoazi, ni banago zoko huntan etzanik»...
Hura eta San Josep sartzen dire ezker aldetik baxotxak paket bat daukala. San Josepek sustengatzen du bere lagun ezindua San Josepek:
«Zato, zato etzazula arruntetsi jadanik
Etxe hautan dugun ikus ez den bihotz duenik»
Erdiko etxeko athean (*ostatuan*) jotzen du bi aldiz:
«Hela! hela, etxekoak zabal othoi lexoa!
Ezindua dut osoki nere Andre gaixoa
Emozue tokiño bat, flakatzera baitoa»

Jendek barnetik:
«Lo leri lelo! goxo duk goxo
Neguan etxe xokoan
Le leri lelo! Hets leiho hori
Beude horiek kanpoan»

Batek:
«Hail hemendik hail
Emak bakhea!»

Denek:
«Lo leri lelo! Dantza ta zurrut
Su ontto baten ondoan»

Ezker aldeko atherat doatzi, Josepek nolazpeit derama Birjina Maria, musikak ala Kantariak ahoa hetsiz «Xorittoa» kantatzen dutelarik.

A.d. Mariak:

(1) «Oi ez nauke xutik ere goazen harpe batera»

(2) Kantariak abapetik aire bera, S. Josepe doalarik ezker-aldeko atherat.

A.d. Maria bere paketaren gainean jartzen da S. Josepek:

(2) «Othoi! othoi utz zazue

(*A.d. Maria erakutzis*) Hau barnean sortzera»

(3) «Bide luze bat eginik hunat heldu baikira»

Athea zabaldu da eta brau! hetsi

(1) Kantariak lehen pertsuaren airea, S. Josepe eskuin aldeko atherat doalarik. Jo gabe, deika dago:

(1) «Hela! idek sar dakitan emaztea barnean»

Zenbeit bozek salbaiki kantatuz

(2) «Gizon ez-deus errumesa, brago brago kanpoan»

Athea hesten da eta S. Josepe loturik dogokio

(3) «Idek, idek, amatuko baitzait naski gau huntan»

Erdirat doa, kantariak ahapetik kantuz daudelarik S. Josepek, besoak zerurat, othoizka:

(2) «Jaun Goikoa, ezotha da zuretako tokirik?»

Kantariak ahapetik aire bera. S. Josepek Birjina laguntzen duelarik xutitzerat eta eskuin alderat doazelarik emeki, mikki...

S. Josepek:

(3) «Goazen, goazen xuti zaite,
goazen etxe hautarik»

Kantariak aldi bat oraino ahapetik ematen dute Kantu osoa eta... Akabo!

ARTZAINAK

Mendia ilhunpean. Zeruan ilhargia. Eskuin; Zerbait atherbe:
erdian: su bat lau artzain urrunean: chirrole, goareak

XURI: *kantuz* *cloches* *goareak*
«Munduan den ederreana, Zeruan: Ekhia
Zeruetarik harat: Jaun Goiko azkarra
Behakoa su ta gozo
jautsiko baita lurrera
Zato mundu zabalaren bakheratzera»

cloches goareak

URDIN: Oi ethortzen balitzaiku!

ZALU: Ekhar bailezake harek bakhe eta zorion

XURI: Arlasok dionaz, ez bide da urrun Golkoaren Semea

BELTZA: Bha! nola nahuzu ethor dakigun?

URDIN: Nik uste dut goiz batez agertuko zaikun, iduzkia bezein argi eta bero; mendi buruan: besoak zabal, begia sutan

ZALU: Bai hori da: adituko ditugu lurpetik burrunbak lanhoetarik soinu gozoak; gizon zuzenak kantuz eta jauzika hurbilduko baitzaizkio eta gaixtoak ikhare daldaran ihesi joanen

BELTZA: Eta hik zer diok, Xuri?

XURI: Niri iduritzen zait gu bezein xehe eta apha! jinen zaikula, elhe eztiz oro bentzunen baititu

BELTZA: Bho! hik holako bitxikerlak dituk bethi

URDIN: Orogen Errege izanen do; munduko nausiak, erresuma azkarrenak erraustuko ditu eta guzien buru jarriko da.

(Irrintzina bat urrunean Denak ehutik urrunerat beha)

ZALU: Zer othe da oraino?

XURI: Otsoak?

URDIN: Ez ohoinak obeki

BELTZA: Ba, ba ethortzen ahal da Goikoaren Semeo

ZALU: Bha! ez bide da gauza handirik

(Jartzerat doatzi)

XURI: To! Arbaso

ARBASO: *(gizon bizar xuri handi bat)* Jar zaizte haurrak, jar zaizte

URDIN: Zer gerthatzen da, hor gaindi?

ARBASO: Gizon ta emazteki batzu sartu omen dire bide ondoko harri azpirat

ZALU: Ohoinak?

ZALU: Agian ez. Zertaz mintzo zinezten haurrak?

XURI: Goikoaren Semeaz

URDIN: ez dela oraino ethortzen

BELTZA: Ethorriko othe da?

ARBASO: *(de plus en plus grandiose) (gero eta handizkiago)*

«Ai gizona, ezti zak, hire begi, beltza

guri zak hire bihotza

Bai ethorriko da, ethorriko»

(sur l'air des lamentations, le geste large)

«Noizarte gaude ilhunbe hautan auhenez eta nigarrez

Zato

Noiz arte dugu nahigabea hazkurri eta nigarra edari,

aspaldi gaude atsekabetan jauna ikhusi beharres,

Othoi!

Gure oihua zeruetarik entzun zazu ba

Igor daukuzu hitzeman duzun Semea

Jauna

Ager zaite, ager daite ethor dakipun Zoriona ta bakhea»

(sur un ton plus gai. Un jeu de lumière peut écleirer Arbaso,

Tous se mettent à genoux, face contre terre)

«Bozkarioz belaunika zaizte oro

Gau beltza ihesi baitoa;

Huna nun dugun argi urratze gozoa

Andereño bat zaiku agertuko;

Garbi eta gozo

Ez du gizonik ezautuko;

Haurtxo bat sortuko zaio.

Esne ta eztiz baitu haziko»

Des «esne» le choeur des anges chante doucement

de plus en plus fort, à une voix, puis a trois)

«Zatozte sortu zaitzue Jainkoa»

JAINKO HAURTXXOA

III

Ezker: S.Josephe, Andre dena Maria, Jesus.

Kontariek hiru bozetan ari dire oihala zabaldu gabe

«Belenen sortu zaiku Jainkoa

Arratseko gaberdian

Hotzez daldaraz dago gaixoa

Lasto pixkaren gainean
Bero ahalez bero dezagun
Hatsa emanez musuan»

(Oihala zabaltzean)

«Ordañez hartzu, Jesus haurtxoa
Nik daukadan hoberena
Hori bihotza, hori gogoa
Hau da naski nai duzuna
Agur, haurtxoa, zuk zare gaurtik
Maite nauten maitiena»

(Puis la Vierge chante)

«Lo, lo, lo, lo,
Nere maitea lo
Eguna zabaldu arteraino
Nik maite zaitut zu maitiago
Xoriak bere umiak baino
Lo, lo, lo, lo»

(Reprise si l'on veut)

Sur ce arrivent en courant deux enfants:
muthiko bat bildots bat besapean eta nexka bat.

A la vue de la crèche ils reculent.

St Joseph leur fait signe d'avancer,

le garçon tire sa compagne et ils se mettent

à chanter au pied de l'enfant,

Nexka Kantuz:

«Jesus Jauna, mathel gorri,
Egizu othoi erri
Eta gaitezen dohatsu
Emazkiguzu bi musu
Emazkiguzu bi musu»

Le garçonnet peut déposer son agneau. Ils baisent l'enfant et s'agenouillent dans un coin.

Arrive Arbaso avec sa grande robe. Des l'entrée il chante extasié

«Jaun Goikoa, Jainko ona, Haur Egina
Huna nahi nuen gau... gozoa
Xoraturik nago zuri beha
Horko ohakoan baitago Jainkoa
Gauzek oro zure azpiko dira
Eta ozkho huntan zira
Lasto pixka bat ohako
Zeruetako Jauna!
Huna nere bihotza eta oro
Zure nago bethiko
Gogotik hil naiteke baitut ondoan
Jaun Goikoa!»

Ahuspez ematen da, Haurraren oinetan eta hor dago, zoratua, adoratzan.

Kantua finitzean, musika zerbeit egin diteke ahuspez ematen delerik, eta betbetan aditzen da urrundik Xirolaren soinua eta artzain gazteen Kantua

A laken!...

Jauzika sartzen dire. Lauek dantzak ematen dituzte, batek edo biek soinua jotzen dutelarik.

Dantza akabatzean, balaun batez belaunikatzen dire eta kantariak «Oi Eguberri gaua» hasten dute eta beha dauden jendek ere ematen du errepika

*(Oxala erori gabe, denek ahuspez daudelarik, Bayona Mariak Haurra altxa dezake,
argi gaziak Hari bekarrik doazkiola)*

*(Jauntzien eta erdergaluen Xehetasunetako ezkiria Mlle Arramendy-ri rue Sopite St-
Jean de Luz)*